

"PRINCIPE E VIANA"

SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA



Coordinador para el Suplemento
en Euskara
MARCELINO GARDE

XVII^o gn. urtea
156 zenbakia

Iruña - 1983 - Iraila

Fran. conc.
N.º clas. 34/60

Director en func. de la inst.
Príncipe de Viana
J. JOSE GRAU

Bide-gurutzean

Uraren antzera, erriak. Aurrera ez ba'doaz, ura bezala usteltzen dira. Aurrera doazen erriek, ibaiak ezker-eskubiko lurak bizi-garritzen dituen antzera, bizia barreatzen dute beren inguruan. Ibaiak, berriz, urolde biurtzean, lurak eramaten eta kalteak ekartzen ditu; era berean, ondamen-zurrunbillora doaz erriak ere naasten direnean.

Poz geiegirik ez dago Naparroa'n. Argirik ez dugu ikusten etorkizunean; aspalditik eta kanpotik datorkigu illuntasuna. Eta guztioi etorri zaigu garraztasuna xurgatu bearra: agintariei ta erriari, goiko ta beekoei, eskubiko ta ezkerrekoei; guztioi, bai.

Eta okerrago dena: bakardadean eraman bear kalte ta garraztasunak. Geiago oraindik, kanpoko ta arrotzak iseka ta bur-laz ari dira gure bizkar. Eta guzia esateko, gaizki ta oker egindakoen kezkaz larriturik ez ba'gaude, arinkeria utsean erori gara... Eta obe dugu illobietako ixiltasuna.

Sakon-sakoneko galdera batzuk egin bearra daukagu naparrek, baiña, bat-batean eta arinkeriaz erantzuteko ez; eta ez ere politika-taldeen bultzadaz eta kanpoko indarrez beartutako erantzunak emateko.

Bide-gurutze illunean gaude naparrok. Zein da guretzat zuzeneko bidea?

Ez dezagun kanpotik itxaro guretzako argia. Erri bakoitzak berak bere baitan aurkitu bear du



Nafarroa'ko ikurak eta bere Burujabetzaren ezaugarriak, orain Diputazioaren Jauregiko erakus-toki batean

argia. Eta argi ori, erriak bere benetako nortasuna ongi ezagutzea da.

Bestalde, Naparroa'k izan du jator seme bat argia, burutsua, zinezkko naparra; Naparroa, beste inork ez bezala, sakonki ezagun eta biotz aundiz maitatu ere. Naparroa'k izan du orrelako seme

jatorra; eta oraindik ere badu, aren jakinduriaren eta maitasunaren emaitzak bizi bait dira, eta ez dira sekulan galduko.

Nor ote? Arturo Campion jauna, Iruña'ko seme ospetsua, bere alderdi guzietan itzal aundiko gizona. Bere garaian, anitz ezaguna ta biotzez maitatua: Ira-

kaslea ta Euskal Jakintzaren Aiton Aundia esaten zioten.

Luze ta bete-betea zen Campion jaunaren bizia; berak eman zion argia Naparroa'ren bideko zati aundi bateri. Adibidez, «Gamazada»'n. D. Arturo dugu egin-kizun aundi aren su ta garra.

DIPUTAZIOAREN ERABAKIAK



OYAN-EPAITZEAK

AEZKOA'KO IRIBERRI ta SARAITZU'KO EAURTA erriei baimena eman die Diputazioak, aiek 1974 zugaitz saltzeko: **Larayaeta'ko** 2591 metro pago ta piñu edo lerak, 17.268.900 pztaren trukean.

BAKAIKOA'ri: 2.696 aritz eta pago, 2.114 m., 16.232.800 pztaren trukez; **Zainpe, Katilutxo ta Apezanarrube** bazterretan daude zugaitzak.

BERA BIDASOA'koari: 5.125 piñu ta agin, 1.711 m., 2.334.290 pza. artzekotan.

BERUETE: 2.407 piñu edo ler, 540 m., 3.239.250 pztaren trukean.

GOIZUETA: **Burugorri** bazterretako 17.245 piñu edo ler, 1.581 m., 1.739.100 pztaren artzekotan.

ILLARREGI: 472 pago ta aritz zugaitz, 400 ta erdi metro, 2.484.000 pztaren trukean.

LESAKA'ko Ayuntamentuari baimena eman diote, 2.482.206 pztaren trukez 5.125 piñu ta aritz saltzeko.

ODERITZ: **Txultxi** bazterretako 240 pago zugaitz, 350 m., 2.818.000 pztaren artzekotan.

SARAITZU'ko Batzar Nagusiari: 1.672 piñu edo ler eta izai zugaitz, 1.678 metro, 11.685.044 pztaren trukez.

URDIAIN: 877 pago, 1.240 metro, 6.517.440 pztaren trukean saltzeko baimena eman du Diputazioak.

DIRU-LAGUNTZAK

LATASA Kontzejuari: 1.679.167 pza. erriko etxeetan ura sartzeko.

LEITZA: 590.163 pztaren laguntza Leitzako Langintza-Eskolari, antxe Uztaillean izana zen Euskera Ikastaroaren orde.

ORREAGA'ko Ayuntamentuari: 51.915 pztaren laguntza Abateliza'ko sarrera ta galtzada konpontzeagatik.

ZILUETI'ko Kontzejuari: 6 milloi inguruko laguntza erria argi-indartzeko lanak egiteko.

Gure azkeneko gerratik, ordean, 36-39'gn. urtetatik, Campion 1937'gn. urtean il zelarik, bere izena ta bere lana baiturik izan dituzte, baiña ez orain bezala dirua kentzeko, gure denboretako naparrek ez ezagutzearren baizik.

Eta orrela, Ez-ezagun Aundia da gaur Naparroa'n onen seme argisuagoenetarik bat. Izan ere, alde bateko ta besteko, zeinik edan ditu egiazko napartasun-iturriko urak?

Campion'en esatera, auxa da Naparroa:

«Antziñako ta bertan sortutako enda bat, euskal enda, du oiñarri Naparroa'k. Erri berezi batek osotzen du, napar-erriak, alegia. Gizaldien joanean eta bere mugetatik kanpora, erri-tasun berezi ta berezkoa azaldu duena, ain zuzen ere Auiñamendi'ko Erreinua izanik. Kon-dairan aurrera bizirik jarrai bear zuen, eta zor zitzaion erri oni bere iraupena...»


Bizitza ori aurreratzeko, osotu ta aberasteko lagungarri izan den guzia, on eta txalogarritzat artu izan dut. Baiña, aultzera, zatitzera, desegitera, naiz desegiteko arriskuan jartzera zeterren guzia, txartzat eta kaltegarritzat jo izan dut biotz osoz.

Campion Irakaslearen itz aue-tan ez ote dugu Naparroa'ren nortasuna ezagutzeko giltza?

EUSKAL ERRIKO LEIOA

ERRIALDE GUZTIEN ELKAR-LAGUNTZA DELA-TA, ESKER ONA AGERTZEN DU LENDAKARI JAUNAK

Agorrilla'k 31. Alde guztietatik uroldearen kalteak: loia, ondakiñak, naigabea, oiñazea ta ERIOTZAK... Eta auen guztien artean, Lendakari jauna, Garaikoetxea'tar Karlos naparra, jendaurrean agertu zen, laguntzarik eman



K. Garaikoetxea Jauna;aurpegira ateratzen zaio barneko kezka

zuten guztiei eskerrik beroenak aitortzeko. Bai, Euskalerrria'n bertakoei eta Estaduko errialde guztiei, eskerrik jatorrenak, agertu zuten elkar-laguntza-ren ordainetan.

Agertu zen eguzkia goietatik eta itzaropena ere bai Euskalerrriaren biotzean.

Lendakari jaunaren aurpegia edo begitartea, goibel eta illun agertu zen, bere erriko jendeen oiñazearen ixpiller egiñik. Kezkaz beterik, baiña larritasunik eta etsipenik gabe. Itz batean, kementsu.

Itzezko ta egitezko, era guztietako laguntzak iritxi zirela Euskalerrri'ra, aitortu zuen argi ta garbi. Ona emen bere itz batzuk:

«Lan mingarri ta latz ontan, giza-elkartasunaren argia agertu zaigu bizigarri. Eta oraingoan, politikazko ta pentsakerazko ez-berdintasun guztien gaiñetik, elkartasun-gogoa agertu da nagusi.»

IRUÑA'KO ZEZEN-PLAZAN UROLDEETAKO KALTEDUNEI LAGUNTZEKO JAIALDIA

Uroldeak direla-ta kalteak izan dituztenei laguntzeko, Jaialdi eder bat egin dute Iruña'ko Zezen-plazan eta 3.000 lagun bildu ziren ikustera.

Umetxoan jardunak, bertsolariak, aizkolariak, Perurena leitzarraren saioa arri-jasotzen, Montenegro ta Itoitz aizpak joteroak. Orra or ikusmira ederra.

Auzo-elkarteak itz batzuk aurkeztu zituen. Erderaz irakurri zituena, Larrea'tar Anjel eta euskerazko irakurlea, Aleman'dar Sagrario, Iruña'ko konzejala izan ziren.

Dantzariak ere izan ziren eta Enrike Zelaia ere bai bere soiñua jotzen. Azkenik, baita uroldeetako argazki-erakusketa ere, «diapositiba» direlakoak guztien aurrean erakutsiz.

Guztiek utsean edo duan egin zituzten beren lanak eta «Iruña'ko Miserikordia» ezagun eta ospetsuak (MECA deituak) ere utsean utzi zien Zezen-plaza. Egia esan, elkartasuna agertzeko bide egokia da, euskaldun guztien arteko senidetasunak eskatzen duen eran. Zorionak.

ORAIN BESTE DENBORETAN BAIÑO SAGARDO GUTXIAGO



Sagardo bigunagoa nai dute gaurko sagardozaaleek

Gipuzkoa'tik esan dutenez sagardoaren etorkizuna ez da argia. Sagartoiak urritu dira Euskalerrri'an beste kekutan bezala.

Egia da urte auetan sagardotegi bakoitzean, orain 50 urte direla baiño saltzen dela sagardoa; baita egia da ere sagardotegiak berak urritu direla.

Sagardoa nai ba'da neurriak artu bear dira, ta baserriari laguntza eman.

Gipuzkoa'ko Diputazioa sagastiak aldatzeko neurriak artzen asi da. Ori egiten ez ba'da urte gutxiko bizia izanen du sagardoak gure artean.

PARIS'KO BERNARD IRAKASLEA TA EUSKALDUNAK

Jean Bernard sendagillea, Irakasle da Paris'ko Unibersidadean, Odol-zientzia duelarik bere gai berezia. Liburu bat ere badu, «Le sang et l'histoire» deitua. Ikustirradi edo telebisioz egiñik du oraintsu mintzaldi bat oso jakingarria. Jakiña, mintzaldi ori Frantzi'ko Ikustirradiaren bidez zabaldu zuen.

Eta beste gauza askoren artean, euskaldunon odolaz mintzatu zen. Inguruko beste errietako jendeek ez bezalakoa dela euskaldunon odola, eta eman ditu bere arrazoi sakonak, aitorpen ori argibidetuz.

Ez dugu ez mito ta ez jainkotxiki biurtu nai gure odola, Hitler'ek egin zuen bezala. Ameriketa'n egindako lan aundiak eta Pillare'ko Ama birjiña, arraza jakiñeko baten zaletasunez *«Arrazaren Eguna»* naastu duten beste batzuek bezala ere ez.

Baiña or dago jakintza-aitorpena zutik: euskaldunen odola ta inguruerrietako jendeen odolak, ez dira arras berdiñak. Izan ere, neurri ez-berdin eta oso berezian ditu bere osakaiak euskaldunen odolak, eta ori ez dago ukatzerik. Esate baterako, *Rh* deritzaion osakia, euskaldunek ez dute beren odolean, zati aundi batean beintzat, eta auxa da berezitasun nabari bat.

Europa'ko erririk zaarrena dela Euskalerrria, esan du Bernard Irakasleak, aspaldi ontan eraso askoren menpean gutxiturik ba'dago ere.

Beste gauza jakingarri bat ere azaldu zuen jaun orrek: Euskaldunen artean, etxe ta ondasunen jabetasuna seme-alabengana aldatzekoan, eskubide osoz egiten dutela amaren bidez. Au da, aitzak ainbat eskubide izan duela amak, bere ondarea seme naiz alabei uzteko.

Ona emen gauza berezi bat, Europa osoaz jabetu zen *«Derecho Romano»* delakoak sekulan ontzat artzen ez zuena; baiña euskaldunek iraupenez eutsi diote eskubide bitxi orri.

EUSKALERRIA'N ASKORENTZAT EUSKERA EZ-EZAGUNA

Eunetik 65'ek ez dakite euskeraz Euzko Gobernuako agintepean dagon lurraldean; ori adierazi du lan-jasotze batek.

Gipuzkoa'n, %'etik 40 dira Euskeraz mintzatu ta idazten dakitenak; Bizkaia'n berriz, %'eko 20 besterik ez dira jakintza mailla ortan; ta azkenik, Araba'n, %'eko 9 besterik ez dira.

Esan genezake, beraz, Euskalerrri zati ontan, lauretik bat bakarrik dela euskalduna; ta irutik bi erdaldunak ditugula.

Arrotz-jende asko etortzeak alde batetik, eta bestetik uri nagusi aundiak, egiten dute egoera larri ortan arkitzea gaurko egunean, gure erria; orrengatik, Bilbao batean, %'eko 80'ek ez dakite euskeraz; ta Araba'n ere, Araba'ko zelaian, %'eko 86 ditugu erdaldunak.

Gizakumeen urte-mugak ere badu bere berezitasuna: 65 urtetik gorakoak, %'eko 40 dira euskaldunak; ta 45 urtetik beerakoak, berriz %'eko 27 dira euskaldunak. Argi ikusten da, beraz, zaar antzekoak ditugula euskaldunagoak; eta gutxiago gazteen artean; 18-24 bitartekoak, %'etik 20 besterik ez dira euskaldunak direnak.

Denara jo-ta, %'eko 73'ek ongi ikusten dute Euskera ikastera bear-tzera erri-eskoletan.

Leengo antzera bizi bearko dugu

Zangotza'ko nekazari onen ateraldiak badu bere gatza, erri-jakinduriaren emaitza denez. Ansa ta Elizalde'tar Jesus dugu gizon au, lurra ematen duenetik bizi dena. Onak ez du batere argia ikusten etorkizuna. Onela mintzo da:

«Nekazaritza ez dago batere ongi ta ziur. Lurreko emaitzak badatoz, etortzen ba'dira. Baiña gero, saltzeko bideak eta salneurriak ez daude iñola ere ziur.

Babarruna, adibidez: emen Zangotza'n dugun bezain babarrun ona ta ezaguna. Udaran, lenengoak, 200 peztan kiloa saldu zituzten. Baiña bereala, Irailla'ren erdian, 180 ta 150 pezta kiloko. Eta ez al dira 100 pezta izatera jexxiko?

Bizimodua, batez ere, uri aundietan dagoen bezala ikusita, zer esan? Beeraka dijoa bizimodua: guztientzat lanik ez dago lantokietan eta jendea ordea, jango ba'du, soro ta lurretara etortzen ba'da, zer egin? Orduan errietan, geiago eman-eraziko diote lurrari, baiña orduan ez da saltzerik izango.

Eta gauzak orrela ba'dira, jateko aiña egin eta askoz geiago gabe irauten ikasi bearko dugu. Orduan bai utzi bearko ditugula lujoak eta geiegikeriak, aspaldi ontan geiegitan oituta baldin ba'gaude ere.

Eta orregatik diot gudate aurrean bezala bizi bearra izango dugula pixka bat beintzat. Orduan izan ere, etxe bakoitzak zituen bere lurra —geienetan beintzat— bere baratzatxoa, bere konejuak, auntz bat edo beste ta oillo batzuk. Orduan, bada, ia gauza guztiak etxeakoak ziren, eta aietatik batzuk saldu ta gaiñerakoaz aixa bizi oi giñen. Bizi, edo nolerebait iraun beintzat».

Orrelaxe mintzo da nekazari burutsua. Irri ta iseka egingo diote askok, batez ere urietatik begiratuta. Baiña... berekin ageri da erri-sena. Zergatik ez ote diete arreta geiagok begiratzen, erriko jendeen iritziei? Azkenean, auetxek bai-daukate bizitza ulertzeko giltza.

SARASATE, IRUÑA'KO SEME MAITEENA

Ongi ezaguna da munduan Pablo Sarasate, Iruña'ko seme musikari aundia bezain biolin-jotzaille trebea. Irailaren 23'an bete dira 75 urte, Miarrizte'n il zenetik, 1908'gn urtean joan bai-zen beste mundura. Iruña'n jaioa zen, ain zuzen ere 1844'an jaio ere.

Napar ospetsu onen izena bizirik dabil napar guztien aotan eta biotzetan. Asko maite zuen Iruña ta urte oroz etorri oi zen «San Fermiñetan», bere jaioterriko festei ospea ematera. Beste napar aundi bat, Gayarre ere, mundu zahalean oso ezaguna zen Sarasate bezala.

Sarasate'k 7 urte zituenean eman zuen lenengo kontziertoa La Coruña'n. Eta 12 urte zituelarik, Paris'en irabazi zuen lenengo sari bat biolin-jotzeko leiaketa batean. Biolin-jotzaille oso trebea izan zen, gutxi bezalakoa. Eta aldi berean, musika-doiñu berriak sortzen ere etorri aundikoa genuen.

Ona emen Sarasate'ren musika-doiñu ezagun batzuk: «Capricho vasco, Romanza andaluza, Aires navarros, Zapateado, Aires bohemios», e.a. Ain trebea zenez bera, besterentzat oso zaillak gertatzen ziren eta dira Sarasate'ren musika-asmatetak. Eta zenbait musika-asmatzaille on-onek, gauza zaillak asmatzen zituzten, Sarasate aundiak jotzeko.

Nork uste zezakean? Baiña Sarasate'ren izena, Pablo ez-baiña, Martín Meliton zen: Sarasate ta Nabaskues Martín Meliton, osorik esateko. Iruña'ko San Nikolas karrikan, jaio zen.

Sarasate, artean bizi zelarik, Iruña'ko Udalak «Iruña'ko Seme Maiteena» izendatu zuen. Eta orain, il zeneko 75'gn urtea bete denean, Erakusketa berezi bat antolatu du Udalak. Ain zuzen ere, Kale Nagusian, 14'an. Or jarri dituzte, jendeak ikus ditzan, Sarasate'ren biolin ederrak, musika-idazketak, domeñak, sariak e.a. Gero jarriko omen dute benetako Museo bat.

Erakusketa zabaldu zenean, bertan izan ziren Sarasate'ren arreba baten billobak.

Orain urte batzuk albiste arrigarria barreiatu zuen «Logos» albiste-etxeak: Austria'ko emakume dotore apain bat etorri zela Iruña'ra, izenez Von Gedina baronesa, eta aitorpen au egin zuela: «Sarasate'ren alaba naiz ni». Nork sinistu? Ona emen emakumearen itzak:

«Sarasate, oso gazte zelarik, ospetsu egin zen eta Viena'ra joan-erazi zuten. Ango aundizkien artean ongi baiño obeki artu zuten aren musika, baiña bera ere bai. Opari asko egin zizkioten, baiña lorerik maiteena, anga neskata bat.

Eta gazte biak, bata katua ta bestea katuago oraindik, jolas alaietan ibilli ziren dirudienez. Gero, neskatiñla bat jaio zitzairen eta uraxe naiz ni. Nere amak, iltzeko zorian zela, orduan esan

zidan nor nuen nere aita. Gogoratzen naiz, bai, Sarasate'rengana eraman ninduela nere amak eta musikari aundiak fereka aundia egin zidan eta pappina dotore bat eman.

Sarasate'ren alaba naizen agiri ta argibiderik ez daukat, baiña aren irudi

txiki bat gordetzen dut, urrezko bitxirik onena baiño maiteago dudana».

Egia ote da? Nork uste zezakean? Baiña... gizona gizon eta emaztekoa emakume direnez, arritzekoa ez da orrelakoak gertatzea. Ez orain eta ez leen.

«Ez da nazio bat bakarrik, giza-eskubideak ongi zaintzen dituenik»

Brasil aundiko Olinda ta Recife lurraldean Gotzai jaun dugu HELDER CAMARA ezaguna. «Beartsuen Gotzaia» esaten diote aspaldi ontan. Baiña ez pentsa, gero, Gotzai xaar eta gizagajo bat denik. Ez orixe!

Nazio ez-berdiñetan 16 sari opa izan dizkiote, pakearen aldeko lanaren aitorpenerako. Nazioarteko 21 bazkunetan tarteko egin dute ta 17 Unibertsidadetan eman diote «Oorezko Irakasle» aitorpena. Baditu 13 liburu idatziak.

Eta Aita Santuak ere aitorpenik eta eskerrik jatorrenak azaltzeko mundu osoaren aurrean, besarkada aundia eman zion antxe Brasili'en bertan.

Zer esan du Helder Camara jaun ospetsu onek? Itz gutxitan laburturik emateko, auxe esan du:

«Mundu osoko nazioen artean ez da bat bakarrik ere, giza-eskubideak ongi ta bete-betean zaintzen dituenik... Demokrazi-girorik onenean bizi direla dioten oietan ere, ez dut bat bakarrik ezagutzen, ain zintzo zaintzen dituenik».

Baiña geiagorik ere esan du:

«Indarkeria guztien ama ta iturri den indarkeria makurra, auxe da: gabezia edo bear gorrian bizitzea... Izan ere, gabeziak edo deus ez eukitzeak jende geiago iltzen du, gerrarik odoltsuenak baiño. Eta ez dut ezagutzen errialderik, zati batean bederen, orrelako gabezia edo bear aundia ez dagoenik».

Jakiña, gabezia edo bear gorria esatean, gosea ta miseria ulertzen ditugu. Eta ez dago ukatzerik. Baiña ez da naikoa, jana ematea. Beste gauza geiago ere oso bearrezkoak ditu gizakiak. Onela mintzo da «Beartsuen Gotzaia»:

«Jana ta bizitzeko etxea bear ditugu, baiña gizakiak geiago ere bear du. Beiñere ez nintzake bizitzen oituko nazio batean, pentsatzeko askatasunik ez ba'lego an eta sinisteko askatasunik ez ba'lego... Ez naiz idi bat, ez naiz zugaitz bat... Gizakume ez daiteke luzaro izan iñun ere, bertan zuzentasunik eta maitasunik ez ba'dago. Eta munduan gaur izugarrizko zuzengabekeriak daude alde askotan. Ona emen zuzengabekeria bat latza, ONU edo Nazio-Ekarteak aitortzen duena: bear izugarrietan eta goserik bizi dira munduko iru lagunetik bi baiño geiago...».

Baiña munduko bear izugarriak osotzerik bai al dago? Baietz esan du:

«Mundutik gosea ta bear izugarriak kendu eziñik ez legoke; kendu ditzakegu guztion artean. Baiña... gizadia beste borroka batean sarturik dabil buru ta belarri: izkillu edo arma oso garesti ta indar izugarrizkoak, zeñek baiño zeñek geiago egin. Eta ortan erretzen dituzte dirutza galantak. Eta ori orrela egiten duten bitartean, goseak eta bizi-eziñak gero-ta indar aundiagoa artzen dute. Auxe da gure munduaren ondamena!»


Gure «MEDIKU ZAARRA» gaixotu

Gure lankide ta idazle ezaguna dugun adiskidea, MEDIKU ZAARRA, gaixotasun batek jo zuela jakiteak, gu ere jota utzi ginuen. Odolaren jo-aldi bat edo antzeko zerbait izan zuen, baiña arrisku aundiagorik gabe. Zori onean!

Kezkaturik jarraitu genuen gure idazlearen osasuna. Jaunari eskerrak, bereaia jo zuen onera ta askoz obeki dago orain.

Eta gure MEDIKU ZAARRA berriz ere lanerako gogotsu agertu zitzaigun ta idatzi nairik. Aolku ta errejeta osasungarriz gu denok bete nairik...

Baiña ezetz esan genion. Berari ere aolku bat emateko egokiera bikaiña iruditu zitzaigun, antziñako aolkua ain zuzen: «Sendagille, senda ezazu zeure burua». Eta gaiñera, salda beroa ta atsedena!



Osasuna indartzean, asiko da bere idaztiak bidaltzen. Bitartean, bego lasai. Izan ere, bitarte cntan, berak leen bidalitako oar eta aolkuak, —emen paper artean lotan zeudenak— aal bezala antolaturik aterako ditugu orain.

M.G.

GURE OSASUNARI GATZA KALTEGARRI?

Gure artean geiegi artzen dugu gatz: bear baiño zazpi aldiz geiago. Ain atsegiña ta bixigarria da, izan ere, aorako! Berlin'go Distler irakasleak esan duenez, odolaren «tentsioa» dalakoa asko jasotzen du gatz geiegiak.

«Bataz beste egunean 15 gramo gatz artzen ditugu bakoitzak. Orren orde, egunean 2 gramo baiño geiago artuko ez ba'genitu, odolaren «tentsioa» ongi ibiliko litzake geienetan».

ZENBAIT IZKUTUKO GAXO- ALDIETAN, EGUZKI-EKINTZA KALTEGARRIA

Adibidez, izkutuko gaxoaldia izaten da, «ácido nicotínico» izeneko «vitamina» gutxi antzera norbaitengan aurkitzen denean. Oiaikoetan «pelagra» izeneko gaitza sortzen da, luzaroan eguzkitan ibilliz gero; ta gaitz ori nolakoa izaten den begira: estali gabe aurkitzen diren soin-azaietan aurpegia ta eskuetan batez ere, alako gorrialdi ta beltzuneak ateratzen dira, ta oso azkuretsuak gañera; ta egun gutxi barri, gorrialdi ta beltzune oiek, azal latz, gogor eta ilunbatean biurtzen dira. Ta eguzkiaren kalteakin bukatzeko, beste itz bi esan ditzagun.

Eguzkiak begietan egiten ditun kalteak: batzutan eta batzuei eguzkiak badaki begietan, kalte egiten, ondoeza ta naigabea sortuz, begiak ereki eziñik utziz. «Córnea» edo begi-azaleko «célula» edo begi-kizkiñak bere onetik aterata il egiten bait dira; berdin gertatzen saie begi-barruko kristalinoeri ere; ta betazalei ere berdin, ta or gelditzen dira erdi legor, begiak bear-bearrezko duen busti-giroa galduz; orrela, begiak leguntasunik gabe, minberatsuak izaten dira be-

gien itxi-erekiak, ta argi biziaren aurrean, zabaldu eziñik; ta egun batzuk bear izaten dira, ildako begi-kizkiñen orde, begi-kizkin berriak sortu arte; ta begien onera etortze ori nekezago egiten da elurteetan gertatzen denean; eguzkiaren erreñuak biziago eta zorrotzago jotzen bait dituzte gure begiak, elur zuri-zurrian zear igaro ondoren. Orrelakorik ez gertatzeko betaurreko beltzak erabilli bear; baiñan ez nolanaiko edo ba'da-ez'badako kristaldunak.

MEETU NAI? JAN GUTXIAGO, ASTINDU SOÑA

Bat gizena dagonean ez da xamurra, meetuz bere neurri egoki batera eltzea, zailia benetan; ta nai ori lortu gabe, or ikusten dira asko ta asko bide erdian gelditurik, asitako elburura iritxi gabe.

Meetze ori lortzeko, ez da naikoa jakiei neurria artzea; bizi-modua bera ere aldatu bearra izaten da, gure gorputza, gure soña ere astindu bearra dago: ibilli egin bear da; lau edo bost kilometro egunero ibilliz gero obe. Etxe-barruan, aszensorea edo igo-gaillua utzi, eta igo oñez zure bizitokira; oetik jaiki ondoren, egunero bost minuto bederik jinnasi pixka bat egin; zure lantokira, berebillean exerita joan bearrean, joan zaitez oñez, larunbata-igandeetan joan mendiruntz, ta al ba'dezu bizikletan edo txirrindan ere ibilli; ta piszina edo ur-puzuetan igari egiten ba'dezu mesedegarri izango da...

MEE TA IGAR DAUDENEK ZER EGIN GIZENTZEKO?

Gizenei debekatutako jakiak jaten asi alde batetik, ta ugariago gaiñera, batez ere patata, barazki-aledunak (zillarra edo babarrunak, lenteja, garbantzuak, azukre, gòzokiak, edariak eta abar. (3.000 kaloria edo bero-indar).

MEDIKU ZAARRA

PRINCIPE DE VIANA 5

Gure Euskalerrri txikian zer gertatzen zaigun, ongi ulertu eziñik gabiltza. Zein taldek zer nai duen, zein gidari edo buruzagik zein den aurka ta zein alde borroka egiten duen, ezin dugu ulertu.

Nola ulertuko dugu mundu zabaleko politikan gertatzen dena? Naparroa'n bertan bai al dakigu zein talde zeren alde ta zeren aurka dabillen?

Emen alboan ageri da argazki bat: URSS'eko buruzagi nagusia dugu, Yuri Andropov. Gure barne-muin izkutuaren agerpen edo adierazpen omen da aurpegia. Begiratu batean, gizon onaren, gaiztakeririk gabearen itxura dauka. Aurpegi ori ez da, ordea, edozeinena: Errusia'ko KGB deritzaion polizia-antolaketa-buru izan da urte askoz. Eta KGB ori ez al da munduko poliziarik zorrotzena?

Nola-nai delarik ere, Andropov jarri zutenean Errusia'ko buruzagitza nagusiaren buru, itxaropen-izpiak zabaldu ziren munduan barna. Bai: URSS'eko giroa ta beste nazioekiko artu-emanak argituko zituen ustea; aurreko buruzagiek baiño legunago egingo ote zituen, bada, gauzak eta mintzal-



Yuri Andropov, URSS'eko Buruzagia

diak eta gainherakoa. Eta asi ere asi zela dirudi gora argitzen.

Baiña orra or Agorrilla'ren 31'tik Irailla'ren 1'gorako gauean gertatua: Ego-Korea'ko egazkin bat, 269 lagun zeramazkien «**Jumbo**» aundi bat, «**misil**» edo su-ziri leertzaillez jo ta suturik bota zuten itsasora errusiar militarrek. Eta jakina: 269 lagunak illik gertatu ziren. Ura ixkanbilla sortu zen mundu osoan egun aietan!

Itza ateratzeko askatasuna dagoen nazioetatik zorrotz eraso zu-

ten errusiarren aurka, basatikeria zela salatuz. Errusiarrak, berriz, Ipar-Ameriketa'ko ixpiak zijoazela «**Jumbo**» artan erantuzun zuten.

Eta politikako naaspilla izkutuak, nork argituko? Buruzagi nagusi den Andropov jaunari baimenik eskatu gabe, militarrek beren alde-tik jokatu zuten eta «**Jumbo**» bota ondoren jakin-erazi zioten. Izparringietan zabaldu dutenez, giroa argitu ta berritu nai dituen Andropov buruzagi berriari militarrek egin dioten azpi-jokua izan omen da. Errusia'n gertatzen danik jakiten ez da erraza, baiña zurrumuruak orrela barreiatu dira. Eta ezin ukatu zerbait gogorra badabillela izkutan Errusi'ko politikarien artean.

Zer gertatzen ote da? Itxurak direnez, Andropov onek politika-antolaketa osoa, besteek baiño gizabide obeaz edo «**zibilizazio**»-kutsu geiagor eratu nai izan du. Indar guztia beren esku daukaten militarrek, ordea, ez dute berenetik ezer utzi nai. Delako «**erreboli-zioa**» beraiek egin ba'dute, beraiek eraman nai dute azkeneariño. Izan ere, indarra beti indar da mundu osoan.

Gurasoenganako eskerrik-eza

DON BIXENTE

Ura goitik beera ibiltzen da beti. Beetik gora joateko laguntza bearrezkoa izaten du. Urak adimena ba'lu, badirudi, beetik gora joan bear lukeanik pentsatzea ez litzaiokeala gogoratu ere egingo.

Uraren antzekoa dugu maitasuna ere: goitik beerakoa. Onela, gurasoek umeak eta osaba-izebek illobak askoz eta askoz geiago maite oi dituzte, geienetan beintzat, umeek beren gurasoak eta illobek beren osaba-izebak baiño. Badirudi, izan ere, umeek beren aaide zaarragoak maitatu bear dituztenik, burura ez zaiela etorri ere etortzen, tamalez.

Ara zer gertatu zitzaidan bein:

Apaiza naiz, eta andre haar-kaar bati eriotzako unean laguntzen ari nintzan. Exur eta axal, ximel-ximela zan andre gaixoa, eta begiak itxirik beste munduan geiago zegoan ia mundu ontan baiño, gaixoa.

—«**Falta Juancín! Falta Juancín! Llegará a tiempo Juancín?**» Yontxu falta da! Yontxu falta da! Etorriko ote da garaiz?, ari ziran esan eta esan, ilzorian zegoanaren seme-alabak.

Juancín edo Yontxu ori kamio-gizona zan, iru egun leenago bere kamioiarekin Gaztel'erriruntz joana.

Eta iritxi zan Juancín! Nik, ainbeste aldiz «**Juancín**» eta «**Juancín**» entzun ondorean, zearo

uste nuan «**Juancín**» ori gizontxo koxkor bat izanen zala. Baiña bai zera! An sartu zan gelan Erriberri'ko gaztelua aiñako gizon aundi, lodi, sendoa.

Jarri zan belauniko oearen alboan; artu zuan ia-ia illik zegoan amaren eskua, eta ia deadarka esan zion negarrez:

—«**Ama, maite zaitut! Ama, asko maite zaitut nik!**»

Beste mundutik etorri zan seguruaski, ori entzutean, zearo illik zegoala zirudian ama xaarra. Iriki zituan begiak..., begiratu zion semeari..., piztu edo zuan ezipañetan irriñotxo bat, eta onela mintzatu zan bere azkeneko indar guztiak bilduz:


—«**Eskerrik asko, seme. Zergaitik egon zera, ordea, ori esateko azkeneko momentu onen zai?**»

* * *

Mutiko, neskato..., esan al diozu iñoiz zure aitari edo amari: «maite zaitut aita», «maite zaitut ama»? Iñoiz, zergaitik, «eskerrik asko», bederen, esan al diezu?


Zure aitari edo zure amari, edo zure izebari, ori esateko, aiek eriotzako unera iristearen zai al zaude?

NAPAR ERREGEEN ILLOBI AURREAN



Aozpez Naparro'ko Erregeen illobi otz-otzen aurre-aurrekoz, auek bizirik ezagun bait zuten Euskalerrri Zarra batasun osoz.

—«Altxa ortik!, —esaidazute emen— batze ori ote liteken gaurkoz! Izan ote liteken itxaropen senideok gaiten bakar-biotz, Euskalerrri Zar onen berriztapen, Ikurrinpean bat esku ta besoz, zor zaigun Askatasuna arnasten Gernika'n, Aritzaren pean, gogoz!



UXOLA

Errioxa'ko Naxera'n, Done Maria'ren Elizan, Nafarroa'ko zenbait Erregeen illobiak

PRESARIK GABEKO ERROTAREN KARRERA BUKATU

Morroi ezta ikusten aberatsa danik; iñon mende ez egon nai dirua duanik, kopetako izardia besteri emanik. Pobrea ezin bizi egin gabe lanik; nork esan lezake ori ondo dagoanik?

Alde guztietatik galdez errezkadan aberastu naizela ia egia al dan? Lenengo nekerik ez det lantegiko maldan, denbora askon ondoren au nola ditxa dan; argatik bizi nai det trankil da patxadan.

Iritxi naizelako urteen adiñez, karrera bukatu det nik lana egiñez; naiko yan da edana, osasuna gaiñez; batzuetan, kotxean; besteetan, oiñez; orain pozikan nabil ez bainago miñez.

ALBIZU'tar GILLERMO

Arintzerik ez dago urteen pixua; beti lanan mendean bizitza osua. Neretzat ezta izan guztiz erosua; gaur, berriz, eserita saria jasua; noizbait ez al nun bear zerbaiten gozua

Presarik ez det; baiña, badaukat errota, eguneroko ogian iriña iota. Iruroita bost urten gaiñera igota, iñork ezin nezake lantegitik bota, egin bear zan dana egiña dago-ta.

Atzetikan segika zatozten gaztiak, senarrak zeratenak eta emaztiak. Oraindik ezkon-gabe zaudeten bestiak oztutze ez bazaituzte eriotz trixtiak, zartuko zeratela pentsatu guztiak.

Aizea

Aizea, itz egidak. Burdin ala arri az ire putz aldian...? Gorputzik ba al daukak asarrez oiukeran mendi bizkarrean...

Zelan dardaratzeituk, eskurik ez ba daukak, ar-zulo baltzenak...? Zer indar dok iregan burdin bage austeko arkaitz gogorrenak...?

Ikusten ez diran gauzak... ba al dituk munduan sinisgabietan...? Gabean sinistu jok etxe zarra jausita, aize dardaretan.

Ator aize garbia, birikien ametsa, urdin gardenetik; urratu egik argia, biziaren indarra, zeru bizkarretik.

Egaz jatok aizea ego barik aidean. Ez jok margorik, ez oin. Lagun orotan jabilk bizia barritzen.

Paulin

Udarregi aita-sem

EGI'TAR BI

Euskalerri'k izan duen bertsolaririk bikaiñenetakoa eta maiteenetakoa izan zen Udarregi. Bat-bateralari jatorra; ziri mingarri sartzaille bizkorra; pa'eragingille atsegiña. Xenpelar, Txirrita, Pello Errota, Txapel, eta Uztapide'ren klaseko plazagizon oparoa, eta ez aiek baiño kaxkarra goa. Mota ortako bertsolariak zaizkio atsegiñenak gure baserritarrei. Bilintx olerkaria, ots, Bilintx olerkaria diot; Bilintx, «*Mando baten gañean*» ortzetik-ortzera abestu zuena, (bertsolari jatorrenetakoa ere bai bait zen); orregatik, Bilintx olerkaria diot, eta Otaño, Enbeita «*Urretxin-dorra*», Xaibador, Basarri eta Lasarte bera, begirune aundiz entzuten ditu baserritar-jendeak; baiña ..., tira!, beste aiek, naiz askotan izkeraz trake-tsagoak izan, gustorago artu oi ditu. Ezpaitetan, bai-erne ez-erne eukitzen du irria, aiek kantatzen asten direnerako.

Udarregi'z ari gerelarik, naita-naiezkkoa dugu aren aita Juanmiel gogoratzea, oso gizon xelebrea izan bait zen, eta bertsolaria gaiñera. Bertsolaria, eta ona, oraindik ere jendeak dionez. Zori txarrez ia aren bertso guztiak galduak ditugu, bat-baterako bertsolaria bait zen; bertsoak paperean jartzen ez zituzten aietakoa. Izaeraz ere, ez bide zen nolanaiko gizona. Pentsa: irurogei urte zituela, Ameriketara joan zen famili guztia emen utzita, an, ez dakit nolako dirutza, pillotzeko asmotan. «*Baiña kukuak oker jo zion lurralde artan*», dio A. Zabala'k bizi egoki. Xentimorik irabazi ez, eta zituen guztiak gastatu. Arrazoi osoz abestu aal izan zuen andik:

**Familiya daukat urruti;
andreak ez nau erruki.
Izuratu nau ederki!**

Naiz zer janik ez zuela ibili, ez zuen Ameriketara bertsogintzarako joerarik galdu! Entzun aren biotzetiko intziria:

**Sei arrua ta erdi banintzan;
orain jetxi naiz bostera.
Au da gizonan diferentziya
urte batetik bestera.
Sosik ba'neuka Euskalerri'ra
joango nintzake ostera,
nola nagoen argi ipintzeko,
gorputz au erakustera.**

Itzuli zen Euskalerri'ra eta emen il zen, 90 urte beteta. Semea, gure Udarregi au, izenez Juanjoxe Alkain Iruretagoyena, Aia'n jaio zen, baiña lau urteko umetxoa zela, Usurbil'era etorri zen, «*Udarregi*» baserrira bere sendi guztiarekin. Giputza degu beraz jaiotzez Udarregi, baiña, kristau bezela, naparra!, Iruña'ko elizbarrutikoa bait zen Gipuzkoa'ren alde au orduan.

Ori dela-ta, konfirmatu Iruña'ko gotzai batek konfirmatu zuen, iru urteko umetxo zelarik gure bertsolari au, «*Udarregi*» baserritik. «*Artikula Aundi*»'ra joan ziren bizitzera. Baserri au ere Usurbil'ko lurretan dago, baiña igeldo erriaren muga-mugan. Antxe bertan zegoen «*Artikula Txikia*», eta an beste bertsolari izentsu bat bizi zen: Olloki. Majiña bat saio egin zituzten soro-ortetik soro-ertzera Olloki mingain-zorrotzak eta Udarregi aita-semeek.

Bein batean illun sartu omen zen etxean Udarregi aita, «*Kontxo! gaizki erabilli natxeok oraingo ontan Olloki'k*», semeari esanoz. «*Egon bedi la ai aita. Gaur illuntzean, barrutian berarekin topo egiten dedanean, ez dut nik obeto erabilliko*», erantzun omen zion semeak. Gau artan au izan zen, barrutian, Udarregi gazteak Olloki zarrari egin zion agurra:

**Aspaldin arro zabiltz, Manuei Olloki;
gure kontra zerade mintzatu galanki;
nola portatu zeran jendeak badaki;
ni're bizi naiz eta, itzezin poliki!**

Goizeko egun-sentirarte egon ziren biak alkarri zirika, baiña tamalez orduango aien bertsoak galduak ditugu.

Aita ta semearen arteko ateraaldiak ere asko eta oso xelebrak izan omen ziren, baiña auek ere galdu zaizkigu betirako.

Semea gazte zelarik, berandu iritxi zen gau batez, eta aitak atetik, «*Oso berandu ator, seme!*», esan zion kantuz:

Aita zarran esanak ez ai dik baliyo»,

Eta semeak kanpotik erantzun:

Bai orixe semeak kaso eingo ba'liyo»

Beste batean, aitak auzoko Lizarraga baserriko aita-seme burusoil bi aipatuz, onela esan omen zion semeari:


Auzoko Lizarraga'k jarri dik peluka

Semeak berriz onela osotu omen zion bertsoa:

Semeak'e obe luke beste bat ba'leuka

Ai, garai artan magnetofoirik izan ba'litz, eta gure bertsolariek beti kolkoan magnetofoi aietako bat eramane ba'lute! Zenbat pitxi eder ez genduke gaur bildurik eukiko gure atsegiñerako!

Gorputza izanzen zuela bere mi-xeriaren erakusle zorrotza, kantatu zuen Ameriketara Udarregi zarrak. Ez zuen gezurrik esaten. Andik Pasa'ra etorri zenean, Donosti'n azo-



Zarautz inguruetako Aia'n jaio zen Juanjoxe Alkain Iruretagoyena, Usurbil'a etorritz gero «*Udarregi*» deitua


Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

ak

bastoi ta makilla...,
pobriak altxatzeko,
ba dek au kuadrilla!

Otaño, Pello Errota, Olloki, Xen-
pelar eta orduango bertsolari guz-
tiekin maiz ari izan zen Udarregi
gaztea erri-jaietan kantari, eta aiek
guztiak aña bazen, eta nere ustez,
gatzezko bertsuetan bereiziki,
baita aiek baiño geiago ere mai-
zaski.

Gaur, Udarregi gazteak dema
bateri jarri zizkion bertsoak da-
karzkigu. Askotan abestu oi zituen
dema edo apostuak. Oraingo au
dema parregarria izan zen: bost



Udarregi'ren omenez Mendiburu'k Usur-
bil'en egindako eskultura

koan, emaztea ikusi omen zuen,
ba. Eta onek ez ezagutu! Pentsa
nola egongo zen argaldurik gai-
xo! Orduan bertsotan asi omen
zitzaion eta orduan, aren abotsa
entzutean ezagutu omen zuen an-
dreak, eta maitasun osoz senar
arlotea besarkatu.

Aita bezain trebea izen genduen
semea ere bat-baterako bertsotan.
Ikus adigarritxo bat. Ez dakit noiz,
Usurbil'go udaletxera joan bea-
rrean aurkitu zen. An aurkitu zituen
bertako sekretario, eskribiente eta
kontzejal batzuek solasean. Etzio-
ten arek nai bezain laister kasurik
egiten-da, onela eraso zien Uda-
rregi gazteak:

Kontzejura etorri naiz
paper baten billa.
Pentsatzen jarrita're...,
au dek alper-pilla!
Pluma eta tintero,

Asto-dema parragarria



Astearte eguna señaladamente,
dema bat jokatzia disponitu dute;
ikustera juan giñan makiña bat jente;
gorputzak mesedeik ez..., patrikadak kalte!

Dema bat jokatu da Igeldo'ko erriyan;
lau asto eme aurrian, ta ar bat erdiyan;
orlako funtziorik juan dan aspaldiyan,
apenas izandu dan gure alderdiyan.

Bai pariaren kontra bost ziran astuak;
kargetan ez pizkorrak, jeniyoiz basiuak;
aurrera biarrian iztingan listuak;
ez dituzte eragin algara gaiztuak.

Markos «Argiña» eta «Maraita» bestia;
desiatzen zan oiek plazan ikustia;
nai zuten marka on bat an erakustia...
Asto diabru aiek portatu ezta.

Markos ori da gizon ikaragarriya,
ekarri zuan ugal bat izugarriya;
sorbaideatik lepora zedijan jarriya,
tiratzen zion baña... geldirik arriya!

Ikusgarri ederra or digute jarri,
batzuetan «iso» ta bestietan «arri»;
akullu motz banarekin zirikatatu sarri,
iatigo eder asko etzuten ekarri.

Jende asko giñaden dema orri begira,
makiñatxo bat gizon gustatubak dira;
aurrera biarrian, atzera salida!
Indarrik asko bazan portatu balira.

Actuak dadukate oitura gutxitxo;
dema kontu oietan daude atzeratxo;
«arrieruak» berriz nekatubak geitxo;
batek esaten zion «Arri, txiki potxo!»

Oso egoki ziran astuak jarriyak;
alanbre ta kollare txit gustagarriyak;
oiez gañera berriz bildois-zintzarriyak,
Belabieta'tikan zakuz ekarriyak.

Lau asto eme aurrian ta ar bat atzian;
arto-burubak janez noizik bakoitzian;
dema ori jokatu ba'litz Maiatzian,
panderubaren billa saliatuko zian.

«Berriri» portatu da iriyaren gisa,
Boletiniñan bialdu biar det Paris'a;
beiak egin zituzten bi arroa txixa...!
Aien gañian marka ondu dute aixa.

Orra zer pasatu dan Igeldo'ko erriyan;
esplikatu nai nuke euskera garbiyan;
arriya eraman dute bost oin da erdiyan;
larri ibilli dira salbo-ta epurdiyan.

UDARREGI

asto bei-pare baten aurka. Ez du
esaten bertsolariak zer pixuko arria
ibilli bear zuten, baiña bai, ba-
diosku, eta maliziz gañera, asto
emeak aurrean ipiñi zituztela eta
arra atzean, emeengana urbiltzea-
rren arritik indar geiagotz tira zezan
noski. Asto emeei artaburu batzuk
erakusten zizkieten noizean bein,
aiek ere bear bait zuten, arritik ti-
ratzeko, kutizigarri zerbait.

Astoen jabeak, Markos «Argiña»
eta «Maraita» baserriko etxeko-
jauna; bei-parearena berriz, «Be-
rriri». Baserritarrek badakite, orre-
lako demetan kaka ta pixa izaten
dela plazan ugari, baiña Igeldo'ko
dema ontan besteetan baiño uga-
riago izan zela dirudi. Orregatik dio
bertsolariak larri ibilli zirela an
abere aiek, ipurditik ezik, ipurditik
oso lasai ibilli bait ziren! «Bela-
bieta» aipatzen du Udarregi'k
«Belabieta» ori Tolosa eta Beras-
tegi bitartean dagoen larre luze bat
da. Eta, je!, lau astoak bost zirela
dio bertso batean; berealaxe Mar-
kos'ek ere indar guztiz tiratzen
zueia astoekin batera, adieraziko
digu. Bosgarren asto ori ba, Mar-
kos bera da!


Olloki'tarrak Manuel eta Mateo

Oso gauza zalla da
arroa umiltzen;
baita, gañera ere,
tontoa abiltzen.

Mundu guzik bazekik
gu nola gabiltzen;
i, ere, zartuko aiz, bai,
gazteik ezpaiz iltzen.

Txakurra're or dago
lotuta kation;
orrek sentitu gabe,
zein sartu atian?

Ori ere sartu zan
neretzat kaltian,
despedituko diyat
olakon batian.



UDARREGI UDARREGI

*Zuk ogiya diyozu / ta nik taluare
pozik jango lutekenak / etxian badaude
askotan baba zarra / oliyorik gabe
babarrunak aitu ziran / artoik eztakat batere
igesi joanak dira / arratoyak ere.*


*Kontzejura etorri naiz / paper baten billa
pentsatzen jarri ta ere / au dek alper pilla
pluma eta tintero / bastoi ta makilla
pobriak altxatzeko / a ze kuadrilla.*

*Ardua eskañi ta
kalian igeska
tragatuko luteke
zagiya trabeska.*

*Asiera eman du / Pello errotariyak
batek ainbat eginkizun / badaukagu biyak
aitortuko ditugu / publiko egiyak
gure kolejiyuak / sagardotegiyak.*



*Espazioz ta ondo / egin esamiña
artu doloria ta / propositu fiña
damutasunarekin / pekatu egiña
aubaz konfesiyya / kontuz alegiña
izan penitentziya / kunplitzeko griña.*



*Mando bat emen dago / koronak utzita
biar dan lekuraño / ezin iritxita;
Santik erosiya du / merke iritzita
gero pasiatzeko / kotxia erantsita.*

*Onrak merezi dizkik / sastre Gregoriyok
ua il eskero dituk / arrokeriyok
geiagua aizela / zertarako diyok?
Gauza ori nola da / bazekiu geyok
arri zer nai diyok?
erregu akiyok
nai baldin badiyok
ik eta nik biyok,
ildakuai pakian / utzi akiyok.*

*Pello konprenditu ezak / nere auko itza
atentziyoz bazaude / ez da izango gaitza:
Gernikako arbola / euskeraren giltza
ez gaitue bentzituko / alperrik dabilta.*

EZLARI TREBEA

Nere andreak ona, ona du eskua,
orrez gain baita guzti duzu asmotsua:
okerra nun txakurra, ark eman zentzua,
ta gaixo zegona ark dizu sendatua.

Txakur txiki bat aurten genduan ekarri,
arratoi-saguentzat zala-ta ongarri;
baiña oilloak ere zitun nazkagarri,
ta gaizki zerabilzkin begitan azarri.

Nolatan utz-aziko joera gaizkiña?
Errukarri zitzaigun aitzurraz iltzea.
Ezin asmatuz bear zuen osakaia,
andreak laister zion ar-azo onbidia.

Txakurra sartu zidan otarre aundian,
bertatik asia zan txilio bizian;
oillo bat gero jar zion saietsian,
elkar onez artuko zutenen ustian.

Baiña, ez, etzan giro! Nolako burruka!
Andreak oindik kanpoz darabil bultzaka
barrukoak ongixe astin-azi naika,
eder ba'litzakion barneko matraka.

Or duk or, txakur gaizto! Jarki zak oraintxe!
Ez al dik bear bada giro onik ortxe?
Leen itukan aurean oillo, txita ta aate,
ase adi or autzak betekatu arte!

Gure txakur txikiak azken-epai uste du.
Zer, zer izan duk ori? Nola aiz xuritu?
Norekin duk mokoka egin ain kementsu?
Zer egin leiza ortan? Irabazi, galdu?

Ez, ez dizu geiago oillorik uxatzen,
lastertxu ikasi du aizkide izaten;
ez dizkigu geroztik oilloak kiñutzen,
eta ere gutxiago atzetik ekitzen.

IGOTZ

GAUZA BITXIAK

GUTXITAN IKUSTEN DIREN EZKONTZAK

Iru aizpa iru anaiekin ezkontzea, ez da noski noiznai gertatzen den gauza. Argazkiko auek Kataluñi'koak dituzu. Pozez agiri dira eta parrez. Baiez, mutillak! Baiez, neskak! Ezkontza gauza pozgarria dela! Mundua mundua den artean, ez da munduan ezkontzarik faltako. Eta ezkontzarekin..., bizia. Aurrera, gaztek! Zuek ezkontzeko prest daukatzutela erriko apaiz jauna!



MINGAIN LUZEENA

«Eulik arrapatzen al ari aiz»? gal-
detzen zaie gure baserrietan umeei,
mingaiña ateratzen dutenean. Ikus
mutiko onen mingaiña: Amezketa'ko
euli guztiak arrapatzeko, a nolako
tresna!

«NON DIRADE GILTZAK?»

EDO

ARRANTZA ARRIGARRIA

Siberia'ko Krasnoirarsk lurraldean, Yenissei ibaira erori zitzaizkion bere giltzak Gergi Tarassenko jaunari, mendiz eta ibaiz ibillaldia egitera joan zenean.

Eta illabete zelarik giltzak galduak zituela, eta geiago berriz aurkituko ez zituelakoan, berriak egiteko erabakia artu zuen.

Baiña orra or, ustekabea eta arrigarriro aurkitu zituela. Nola ordea?

Galdu zitueneko lekutik 50 kilometro bidera, arrantzuan zebillen, eta bitartean «Non dirade giltzak?, Matarile...», kantari. Eta arrapatu zuen arraia ireki zuenean, antxe aurkitu zituen zorioneko giltzak, arraiaren sabelean. Naiko arrigarria ez al da?



Aita Irala, «zorionaren misiolaria»

Iruña'n bete ditu Jesulagunetako 70 urte


Irailla'ren 24'an bete ditu Iruña'n Aita Irala ospetsuak, Jesus'en Lagundian sartu zeneko 70 urte aundi. Eta berak baditu gaur 87 urte, baiña ez dirudi gutxiagorik ere.

Bizkai'ko Portugalete'n jaio zen 1896'gn. urtean. Ain juxtu onen aitak eraikia da Bilbao'ko «Irala-barri» auzo berria. Lenengo ikasketak Frantzia'n eta Ingalaterra'n egin zituen eta, 17 urte zituenean, Xabier'ko Gazteluko Ikastetxean sartu zen jesulagunen artean.

Gero, 1927'an, apaizturik, gogotsu ekin zion bere lanari. Baiña gaixotu egin zen, batez ere buruko gaitzez edo kirioetako eziñez. Suiza'n lortu zuen osasuna. Onela dio berak: «Suiza'n ikasi nuen zorioneko izaten eta sentimentu baikor edo onezkoak eukitzen».

Buruauste ta ausnarketa askoren ondoren, zoriontsu izateko bide bat asmatu zuen kristaudentzat. Eta zorion-bidea erakusteko asmoz, misiolari joan zen Txina'ra. Giza-zoriona erakutsi nai zien, baiña batez ere kristau-zoriona edo goitarra. An ibilli zen Txina'n misiolaritzan, komunistek andik bidali zuten arte. «Lurreko marxista-zoriondegia» besterik ez zuten bear komunistek eta Aita Irala'ren eta misiolarien kristau-zorionari ostiko eman zioten.

Urte asko daramazki bere iritzi ta liburuak zabaltzen. Misiolari jarraitzen du, beraz, baiña orain bete-betean «zorionaren misiolari». Ona emen liburu baten izena: «Control cerebral y emocional», au da, «Buru-biotzei neurria artzeko bidea» esango genuke. Baditu geiago ere, amar izkuntzataraz itzu-



Aita N. Irala S. J. bizkaitarra, 87 urtekin Iruña'n bizi dena

liak eta 1.300.000 liburu salduak. Ontatik ateratzen duen diru guztia, berriz, Txina ta India'ko misionariei laguntzeko bidaltzen du.

Badira 25.000 mintzaldi, an eta emen egin dituenak; eta badira 20.000 lagun, buru-biotzetako kezka eta gaixotasunez joak, Aita Irala'k nolerebait laguntza eman dienak. Ona emen bere itz batzuk:

«Zoriontasunaren giltza, oso erraza da. Egizu zuk zeure burua zoriontsu, izan zaitez zeu zorioneko. Baiña ez, noski, zeurekoikeriaz, eta zeuk atsegiña izateko. Izan zaitez alai ta zoriontsu, zu maite zaituen zeruko Aitak, pozik zaudela ikus zaitzan; zu zorioneko izatea nai duen Aitak, zoriontsu ikus zaitzan. Izan zaitez zoriontsu, zure poza ta alaitasuna zure senide gizakien artean barreiatu ta zabaltzeko».

«Pozik, lasaitasunez eta alaiki bizi bear du bakoitzak orain-aldia. Utzi dezagun, joanik den leen-aldi illun edo tristea. Eta ez gaitzala zapaldu etorkizuneko larritasunak bere azpian».

Onelaxe bizi da bera ta orrela iritxi da 87 urteak gaintitzera. Urte askoan iraun dezala Aita Irala'k eta ikas dezagula guk ere.

Peru Txiki'ren ateraldiak

Egunekoa bertsotxo batez asi nai izan du Peru Txiki'k:

Nere ipuiak dira
danok egiteko parre;
biotza zabalduko dezu,
baita osasuna ere.
Eta itxaropenarekin
biziko zera alai eta trebe.

Peru Txiki etxean dago, bere seme bost urtedunakin. Eta semeak:



—Aita, aita, atean jo dute...

—Joan eta ereki atea. Baña, kobra-dorea baldin ba'da, esan ez nagola etxean.

Mutikoak ereki du atea eta, bai, kobra-dorea:

—Aita etxean al da?

—Ez, jauna, ez dago etxean aita...

Kobra-doreak berriz:

—Ez al dakizu noiz etorriko da?

Eta mutikoak, ordun, an bertatik:

—Aita, aita... Orain zer esan bear diot?

—Dotriña bai al dakizute?, galdetu nien mutiko batzuei.

—Bai, esan zidaten; dena; galdetu nai dezuna.

—Zenbat Jaungoiko dira?

—Lezio ori ez degu oraindik ikasi! Baña Dotriñatik ederkiena, Letania dakigu.

—Ez det nik ori siñisten! Ea, esan zazute Letania...

—Esango degu; baña zuk esan aurretik Santu guztiak, apaizak bezela; orduan, guk esango degu: «Ora pro nobis! Ora pro nobis!»



• ERRIZ - ERRI •

Baztan

AURTENGO «BAZTANDARREN BILTZARRA» ETA MARIANO IZETA'RI OMENALDIA



Mariano Izeta Elizalde, aurtengo «Baztandarren Biltzarra'n» euskaltzale aunitzen omenaldi ederra artu duena

Agorrilla'ren 21'ean zen: egun ederra, jai aundia ta ospakizun berean Izeta'tar Mariano'ri omenaldi atsegiña.

Goizean, «Ongi-etorria» Baztan'go amalau errietako ordezkari, oitura den bezala. Meza Nagusia, Elizondo'ko eliza bikaiñean, jendetza aundia zelarik bertan.

Amabietan, «orga» dotoreak bata bestearen atzetik: guztira AMASEI. Zer adierazten? Bazan'go arazoak, bearrak, giroa, alaitasuna, e.a. azaldu zituzten gurdien bidez. Lekarotzarren «orga»'ri opa zioten lenengo saria. Baiña zer ote zen? Erriko ostatu edo taberna batean, lau mutilzar musean jokutzen; ederki egiña benetan. Beste gai batzuk aipatzeko, inguru artan gertatu oi den txerri-gaitza, adibidez. Euskal-senideen artean mugak jarri zituztenez gerokoan, ain euskalduna den «ofizio» bitxia azaldu zuten beste gurdi batean: muga-ausle edo kontrabandistak.

Lagun-arteko bazkarian, 1.850 bazkaldar bildu ziren. Guztia esateko, oso onak zeuden «Lekarotz tortilla», piperrada eta egaztia, ta gaiñeko goxoa; azkenik, akeita, pattarra ta purua. Antolaketa, beti bezala, oso ederki. Badakitela baztandarrek gauzak ongi eratzen!

Eta guztia ordaintzeko, 1.000 pezta ta kito. Orixe bai dela merke ta ongi, ez da erraza baiña. Eta ala ere gauzarik ederrena, guztien lagunartea. Zer geiago eskatuko dugu?

Felix'en soiñua ta Maurixio'ren txixtu zoragarria, batetik, eta Klemente, Elizagoyen eta Amorena bertsolariak bestetik. Urrena, Haritschelhar jaunaren mintzaldia euskeraz: «Mariano adiskide, euskal-idazle, dantzari, bertsolari...»

Eta «Baztandarren Biltzarra»'k oroigarri apain eman zion, itz auek idatzirik zeuzkana:

Hainbat lan eta laguntza bildu digun
Mariano Izeta'ri Baztan'go Herriak,
«Baztandarren Biltzarra»'ren bidez.

Eta Mariano adiskidearen biotzak gaiñez egin zuen pozez, eta euskaraz mintzatzera leertu zen. Euskalerrri'ko gizon apal eta langille jatorretakoa dugu, idazle ta ekintzaille aspergaitza. Pozik eta eskertsu ageri zen Mariano. Berari bai zor diogula esker ona askok eta askok, ainbat laguntza ta bultza eman izan dizkigulako.

«Dena Euskararen alde ta Euskalerrri'ren alde egiten dut, eta ortan saiatuko naiz aurrera. Guztio adiskide zaituztet, guztiok maite zaituztet».

Ongi genekien ori, Mariano. Zorionak zin-zinenez eta urte askoan.

X.X.

Pozaz beterik nago
zuek ikusteaz emendik,
zuen tarteaz bizitzea
ez naiz aspertu oraindik;
berrogeita zortzi urte dira
etorri nitzala Larraun'dik,
etorritako ta baztandar guziei
Agur biotzan barrendik.

Gaur Omenaldi bat bateri
berak ongi merezita,
nor den bereala
zerate ikasita:
urte askoan bete digu
Euskalerrri'ko kazeta;
Omenaje ori artzen duena
da Mariano Izeta.

Elizondo'n bizi dena da
emen bertan jaioa;
euskarari ematen dio
merezi duen balioa;
urte askotan iriki digu
Euskalerrri'ko leioa;
elizan euskeraz beti leitzen du
San Juan'en Ebanjelioa.

Euskalerrri'ko mendi gañek
maite ditu biotzian,
eun da amaika aldiz izana dago
Legate'ko gurutzian,
ta bere aurrian jartzian
aitzen da otoitzian;
zoriontsu izan dedilla
bizitza ta eriotzian.

Irurogeita emeretzti urtekin
Agur egiten du «Gorriti»'k,
luzenaz ere azken eguna
ez dabillo oso urrutik;
zuek utzi bear pena ori
ezin kendua burutik,
telefonoa jartzen ba'dute
itz egingo det zerutik.

Donostia

GERTATUTAKOAK

Mingarri izan zizkaigun gure guda anai artekoa sortu zitzaigunean. Gu iñunxente batzuk besterik ez giñan. Naste-borrasketak, ordukoak, nabaiturik, elkarren artekoak, ze azken madarikatuak ekarri zitun anai artean!

Gudatu bearra izan gendun, alde batekoak besteen aurka. Arrazoiak zeintzuk zituzten? Pake santuan bizi giñan. Bakoitza beren lanetan. Itxasoan, mendiko soroetan, baserrietan edo olafabriketan. Utzi arraunak, utzi atxurak eta utzi fa-

Bertso-berriak

Klemente Ezkurdiak

Elizondo'n jarriak

Gaur elizan asi degu
festaren oitura zarra;
oitura ori zaindutzia da
euskaldunak daukagun zorra.
Gaur Elizondo'n gañian dabil
Euskalerrri'ko izarra;
aurrera ere bizi dedilla
gure BAZTANDARREN BILTZARRA.

briketako erramientak eta ixkullua artu ta mendira. Zergaitik? Zeintzu-gaitik? Onerako al ziran burrukak? EZ MILLA BIDER! Burruka ondorena dakigulako, bat eta beste, zaurituta geldituko diralako. Elkar joka ibili ondoren, odola ixurtzen dalako. Aurreago elkar lagun bai ziran, ondoren arerio ziralako. Azkenik ondarena nagusi sendi guzietan eta makiña gazte eta zaarrak ere erail ta, orra ze nolako bukaera guda batena!

Oiek orrela zirala, nik beintzat, azkenarte gudatu arte, iraun nun eta ez ninduen arrapatu bestaldekoak. Santander uri eder ortatik izan gendun era ontzitxo txiki batean iges egiteko. Gogaiturikan Santander'ko azkena, kaialdia notin beterik guziak deadarka ontzietan sartzeko; eta ontzi guziak, zeudenak, aparte eta igeri ere etortzen ziran barrura. Beste millaka aiek, gizajo aiek, an gelditu ziran negarrez, karraxika, deadarka.

Gaueko orduetan irten gendun Santander'tik. Urrango goizaldera La Pallize aurrez-aurre geunden. Emen gendarmek berealan eta derriorrian sartu-arazi bultzietan ta batzuk Baiona'ra joan giñan eta besteak Bartzelona'ra. Baiona'n itxoin, guda bukatu arte; eta bukatu zanean artu gendun ontzi txiki bat eta irten Amerika'runtz. Sei «tonela» zitun, eta 33 egun barru eldu giñan Venezuela'ra.

Venezuela'n OGEI urte, IRU illabete eta ZAZPI egun egin ondoren, berriro etorri nintzan onera. Emen, orduko ertzain aiek, galdera ugari egin zidaten, eta nik erantzuten nion onela: «Baiñan, oraindik ortan al zaudete? Orrenbeste urte igaro eta olako galderak oraindik? Espaiñi erdia beste erdiakin burrukatu giñan, zuek irabazi ta guk galdu. Ez al da orain kito egiteko unea? Ain zuzen gu lau anai gudatu giñan. Bi alde batetik, eta beste bi bestetik. Beraz, KITO gaude».

Oiek entzunez ertzaiñak parre egiten zuten, eta nik berriro esan nieten:

«Begira, baldin nik zerbait ostu, erail edo erre ba'nu... nola leike gero onera etorri? Ez jaunak ez, nere kontzientzia lasai ta trankil dago eta emen bizitzeko etorri naiz. Nai dezutenian ona emen nere zuzenbidea».

Aiek joan ziran. Gu oraindik bizi gera. Bizkarrean dauzkat urteak eta larogeira eltzeko beste amar urte palta...

E. OZKIN

Uharte-Arakil

NAPARROA'KO ARTZAI-TXAKUR ETA GASNA SARIKETAK

Berriro ere Amaiur'ko den Patxi Etxeberria bere zakur «Pintxe»'kin irabazle dugu Nafarroa'ko Ardi-Txakur Sariketan.

Eta Gasna sariketan, berriz, Errazkin'go Luis Oreja den artzaiarena izan zen irabazlea.

Egun ederra pasa genuen Uharte'n «Aralar-Mendi» taldeak antolatutako festan. Gure zorionak talde oni, bere ekintza ederragatik.

Goizetik asi zen festa; musika, bertsolariak eta aintzinako tresna erakusketakin. Ondotik, gasna-sariketa eliz atarian. Onen epai-maia auxa zen; Busca-Isusi jauna, Zumarraga'koa, María eta Fernando Arza, Iruña'ko izen bereko Restaurante'koak, Ignacio Idoate «Europa»'koa, Joxe Mari Uhalde, Diputazioko «Agencia de Desarrollo Ganadero»'koa, Candido Ziganda Oskoz'ko Koperatibakoa, Augusto Etxeberria albaitea eta Zakarias Puente, Laredo'ko «Hotel Rico»'koa.

Eta auxek geldi ziren irabazle:

- 1.-Luis Oreja, Errazkin'goa.
- 2.-Joxe Mari Zabaleta, Etxarri-Aranaz'koa.
- 3.-Jose Luis Garmendia, Etxarri-Aranaz'koa.

Sari berezia Etxarri-Larraun'go Miguel Lasarte Mugiro'ri eman zioten.

Arratsalde, berriz, Txakurren Txapelketa egin zuten, «Gainbera» zelaietan. Txakur bakoitzak iru zailtasun gaintitu bear zituen. *Esana egitea* lenengo: izendaturiko bidean barna zuzen ibiltzea, agindu bezala. *Artaldea biltzea* bigarren: artaldea bildu bear zuten txakur bakoitzak artzaiaren on-



Patxi Etxeberria, irabazlearen Ontzi ederra artzekoan. (MENA arg.)

dora ta gero ataka batetik igaro-erazi. *Eskortan sartzea* irugarren: Aurreko zailtasun biak ongi gaintitu zituzten txakurrek egin bear zuten au, onelaxe egin ere: Toki jakin batean bildu artaldea ta atakaz barnera eskortara sartu-erazi ta gero andik kanpora atera.


Amar txakur atzera utzirik gertatu ziren lenengoan, eta bigarren saiora sei aukerak igaro ziren: *Lobita*, *Pintxe*, *Lauek*, *Fina*, *Txaporro* ta *Kapote*. Bigarren saioan, artaldea artzaiaren ondora bildu ta ataka batez bestaldera igaro-erazi bear zuten. Ontan, bi gelditu ziren aurrerako.

Azkenik, artaldea eskortara sartu-erazi ta andik egoki atera zuenez, *PINTXE* gertatu zen nagusi, ta Patxi Etxeberria, Txapeldun. Gure zorionak, berriz ere irabazle gertatu den Etxeberria'tar Patxi'ri, Amaiur'ko artzai jatorrari, eta zorionak «Aralar-Mendi Elkartea» osotzen duten guztiei.

TX. ERBITI



Argazkian PINTXE, lenengo lekuan gelditu den txakurra



Hek zazpi yoko eta gurek bederatzi
halere Laphurtarren plaza ezten aski.
Has berrian bezala trebesian bethi:
urgulluz nahi zuten partida irabazi.
(Nafarroa'ko Euskal-Kantu Zaharrak)

PILOTUA-JOKUA

Ez ba, Larreborda'ko Martiuxe ez zen tragoa botatzera joana. Ez genuen aurkitu jende artean. Aurreneko partiduan berrogei mila duro galdu ba'zituen, bigarreanean kittatu bearrean, nonbait berriz ere galtzea tokatuko zitzaion. Beti ere, andik aldegin zen.

Bein batean, bi mutil elkar aserretu omen ziren eta bata bestea jo. Kisto'ren golpeak artu zituenak esan omen zion besteari:

—Au ez duk orrela geldituko.

—Ez, ez duk orrela geldituko. Azi egingo zaik, erantzun jotzaileak...

Orrelakoren bat gertatuko zitzaion noski Martiuxe giza-joari. Aurreneko partiduan sakela luzatu eta bigarreanean, beretara itzuli bearrean, geiago luzatu oraindik. Pilota boro-bila izaki...



Dirua jokatzera gauza bat da; baiña, batzuek jokatzen duten bezela egitea, beste bat. Adibidez, ez dut bein ere ulertu izan, nola joka daitekeen dirua ain arin, partidua asi aurretik. Batez ere, pilotak ikusi aurretik. Baiña azter dezagun, sakon sakonean, arazo au. Ez da partidu bat edo besteari dagokion arazoa, pilota, pilotari eta pilotariaren nortasun eta izateari dagokiona baizik. Eta emen punttu iatza ukitu dugu: pilotariaren nortasuna.

Tolosa'ko Beotibar'ean berriro. Urte mordoxxa gertaturik. Lau pilotari frontonean. Bi aurrelariak, bat baino bestea obe ari ziren. Jendea gustora zegoen. Alako batean, seigarren koadrotik eskerrez eta airez sartu zitzaion pilotari, indarrarekin zer egin ez zekien pilotaria. Besteak, nola edo ala ekarri eta, motx motx uztean, tanto sartu zion. Jendea sutan, txalo beror, ilusitakoa ezin sinestuz.

—Ire indarra ba'nu, esan zion tanto sartzaileak besteari.

—Bai, ire burua ba'nu, erantzun besteak.

Ara itz gutxitan, gure arazoaren muiña. Bi pilotari mota dauzkagu: batetik, berez indartsuak direnak. Gorputz lirain,

egokia, atleta gorputzekoak. Bestetik, indar gutxiago izatearren, trebe eta zain bizikoak. Beren indar falta, eskumuturreko bizitasun eta buru bidez estaltzen dutena. Aurrenekoie pilotari indartsua dagokie, «latex» edo plastikozko boro-bil txikia eta gainean ari asko duena. Aulegoie berriz, barrenean boro-bil aundiagoa eta ari gutxi dutenak.

—Adizak, i; ba al dakik zein izan den gora beera gutxiena izan dituen pilotaria?

—Atano? Abrego? Iturri? Ez zekiat.

—Orrelako au.

—Ago ixilik. «Terzera» bat izan dek beti eta.

—Orretxegatik bada, gora beera gutxitakoa. Beti beian...

Barkatu nere lagunaren txantxetako gogoa. Bromak broma; baiñaz, gure pilotariak, saskian jartzen dizkieten pilotei eskerrak igaro bear dituzten naigabeak ez dira bromatzat artzekoak. Pilota dela eta, zenbat eta zenbat irristu eta oi, zenbat buruauste, oinaze eta neke? Zenbat aldiz entzun bear tongo itz nazkagarri ori? Gaur errez irabazten duten partidua, biar errezago galduko dizute. Eta diru jokatzaileek ez diete barkatuko. Eta arrazoa, eunetik larogeita bederatzitan auena dela, dudarik ez; baiñaz, eta... noren errua?



Demokrazia itza baino merkeagorik ez daukagu gaurko egunkarietan; baiñaz, betikoa: «zertan aizatu, artan makurtu»; eta itz orrekin ere berdin gertatzen Egunero partidua berdindu bear dela esango dute. Konporme. Baiña beste aldera ere berdin daiteke. Bat ona baldin ba' da, jarriezaiozu lagun moteltxoagoa. Orduan bai, «figurak» deitzen diren oriek, egitazkoak izango dituzula. Ez egunkariaren bidez sortutakoak. Putzeko pilotak bezela aizatuak. Jendearen diruak lortzeko amu bezela jarriak. Saskian bi klasetako pilotak azalduarren, partidua irabazteko gauza direnak; nagusien «entxufatuak» ez izanarren, gora igo direnak baizik.

YON ZANARI

OSASUNA FUTBOL-TALDEA LENENGO EKIÑALDIETAN

Ona argazki ontan Iruña'ko «Osasuna» Futbol-Taldea; irakurle geienek ezagutuko dituzte noski nortzuk diren.

Aurten, lenengo saioetan mottel asi dira, ta atzera xamar dabiltz gure osasundarrak; baiñan oraindik asko ikustekoak garenez gero, ea emendik aurrera gogotik sayatuz gure izen ona goi-mailla batera igotzeko modua egiten duten.





NAPARROAKO KULTUR-JAIK ERRIBERRI'N

SUMARIO

1: BIDE-GURUTZEAN. Encrucijada de Navarra. Difícil situación. El Maestro Campión nos sirve una cita preciosa, clave de identidad para desorientados.

2-3-4: EUSKAL ERRIKO LEIOA. Ventanal: gratitud del Lendakari; la TV francesa habla de la singularidad de la sangre vasca; filosófica sensatez de un sangüesino; la dolorosa mentira de los Derechos Humanos.

5: GURE «MEDIKU ZAARRA» GAXOTU. A nuestro habitual colaborador de temas médicos le atrapó la enfermedad. ¡Cuidado!

6: NAASPILLA IZKUTUAK POLITIKAN. Los ocultos recovecos de la política. ASTEKARI. GURASOENGANAKO ESKERRIK-EZA. Ingratitud con los padres. D. BIXENTE.

7-8-9-10: BERTSOLARIK, «UDARREGI», padre e hijo. EGI'TAR BI. El padre un tanto «arlote». Bertsolaris repentizadores, agudos, mordaces, festivos. Deliciosa la ridícula «Apuesta Asinaria».

11: GAUZA BITXIAK. Venturas, aventuras y desventuras de la buena gente.

12: AITA IRALA. A los 87 años, el P. Irala ha cumplido en Pamplona sus 70 de jesuita. Y tan majo, él, «el misionero de la felicidad». **PERU TXIKI'REN ATERALDIK.** Unas mini-sonrisas que se agradecen.

13-14: ERRIZ-ERRI. Por los pueblos: BAZTAN, «Baztandarren Biltzarra» y Homenaje a M. Izeta, X. X.; HUARTE-ARAQUIL, Concurso de Quesos navarros y de Perros de Pastor, TX. ERBITI; DONOSTIA, Que cuenten cosas quienes como E. OZKIN pasaron mucho y tienen buena memoria y mejor corazón.

15: KIROLAK: El juego de pelota, por YON ZANARI; Campeonato de Aizkolaris de Euzkadi, con victoria para el navarro Mindegüa.

16: NAPARROA'KO KULTUR JAIK. Festivales de Olite; cumplida la tercera edición.

Jesús Malon jaunaren zuzendaritzapean, aurrera doa Naparroa'ko Diputazioko Yakintza-Sailla bere kultur-lanean.

Urtero-urtero, Agorri osos, jai ederrak eskeintzen dizkigu naparro'i Erriberri'n.

Zergaitik Erriberri'n? Erderaz Olite esaten zaion erri ortan Naparroa zarreko gure Erregeen Jauregia dagoelako. Karlos III garrenak edertutako jauregi bikaina.

«Ez da izango Europa'n au bezalakako Jauregi dotorerik duen erregerik», idatzi zuen Jauregi au ikustean amabosgarren mendean Alemani'tik etorritako jaun ospetsu batek.

«Ikusi dut eta ongi ikusi ere, -dio bere paperetan-, eta ezin ditek sinistu zeinen ederra den». Jauregiak zituen urre-kolereko gelak arritu zuten geienbat gure doxtarra (alemaniarra).

Urte bakoitzean, jendeari atsegin emateko, bide bereizi berritik jotzen du Diputazioak. Aurreneko urtean mundu guztian ospetsu diren taldeak bildu zituen antzerki aundiak aurkestu edo errepresentatzeko. Bigarren urtean talde os-

petsuen artean sartu zituen erri-taldeak ere. Aurten, jaia auldu gabe, erakusketa-ekintzak ere sartuak izan dira.

Jakina, ez da mundu guziaz pozik gelditu.

Aurreneko urteko gaiak, erriari ezer gutxi esaten zioten gaiak omen ziren. Zeruan kea bezela ezereztu omen zen jaialdi guzia.

Bigarren urteko gaiak gai merkeak omen ziren balioz, baiña diru asko kosta ziren gaiak. Gastu aundi arrek asko kezkatu zuen jende-talde mardul bat.

Aurten, Erriberri'z landa, beste erri ospetsu aundi batzuek bai bait dira Naparroa'n, erri oietako alkate bakoitzak bere errira eraman nai izan ditu Naparroa'ko jai oiek. «Konfitte goxoak dira Erriberri'ko jaiak; danoi gustatzen zaizkigun konfitteak», dio Lizarra'ko alkateak. Bera'koak: «Emen -Bera'n-, ots urria ateratzen dute jaialdi auek», esan digu. Konturatzen gera: Euskalerrri'ko girotik oso urruti dagoela Erriberri'ko jaien giroa, esan nai izan digu Bera'ko alkate jaunak.

Orix berbera adierazi du Tafalla'koak: «Jai auek beetik gora, au da: erriko gauzei ardura geiago emanez, antolatu bear lirake, gure erriak ere bere kultura bai bait du».

Lasaitu bitez larri daudenak. Naparroa'ko jaialdiak aurrera doaz beintzat. Ez da katerik autsi. Akatsik gabeko gauzarik ez da. Akats oiek ezagutzea da okerrak zuzentzeko bidea.



Erriberri'ko Gaztelua, Naparroa'ko Jauregi ederra benetan
(J. Nagore argazkia)

